

Honainokoa laburbilduz, eskuartean dugun hiztegi interesgarri honek gaurko Sakanako euskara islatzen du. Are interesgarriagoa da, besteak beste, aldi berean euskal tradizioak gorde dituen ohiturak eta kontuak biltzen dituelako, nolabait hiztegi bizi eta gaurkotu bat osatuz, tradizioak eskaintzen duena ahantzi gabe.

*Orreaga Ibarra Murillo*



**ETAYO ZALDUENDO, Jesús**

**Navarra, una soberanía secuestrada: historia y periodismo (1923-1931)**

Tafalla : Txalaparta, 2004. - 510 p. ; 22 cm. - ISBN: 84-8136-359-6

Hizpide dugun liburu hori ez da oso ohikoa. Alde batetik, egunkari desberdinetan, bereziki La Voz de Navarran, kaleratutako artikuluen bilduma delako. Bestetik, artikululu multzo hori egile bakar baten idazlumatik atera badira ere, talaia askotatik azter daitezkelako. Liburuaren izenburuak dakarrenez, historiak eta kazetaritzak bat egiten dute Jesús Etayo Zaldueñoren lanetan baina, politikak eta kulturak ere, oso pisu handikoak ditugu kazetari-historiagile nafarraren idazki horietan. Berak, lanbidez Nafarroako Diputazioan artxibozain gisa jarduteaz gain, Iruñeko komunikabide idatzietan ardura nabarmenak izan zituen. Hori dela eta, “El Pensamiento Navarro” deitutakoaren zuzendari izatera iritsi zena, geroxeago “La Voz de Navarra” egunkari abertzalean kolaboratzaile izan zen urte askotan.

Historia libururik idatzi ez bazuen ere, kazetari iruñarrak kaleratutako ehundaka artikuluei esker, antzeman daitezke zituen ezagutza historiko sendoak, baita horiek zabaltzeko zuen sena ere. Lau hamarkadetan zehar izandako jardunean ederki frogatu zuen, egunerokotasunak agintzen dituen norabide aldakorrek eta “Magistra Vitae” den historia oso elkarkideak izan daitezkeela. Oraingoa eta biharkoa burutzeke ditugun bitartean, aurrekari historikoei gaurkoa nabarmen argitzen ahal digutela. Guzti hori frogatzen dute liburu horretan bildutako ehundik gorako artikuluek. Horiek funtsatzeko Etayo Zaldueñok Nafarroako aro historiko desberdinetako iturrietatik edan zituen, zegokion abagunetako lehia politiko-historiografikoari ekiteko.

Komentatzen dugun liburuak, 1923 eta 1931.ko urteen arteko idazlanak biltzen ditu, Primo de Riveraren Diktaduraren hastapenetik II. Errepublikaren aldarrikapena eta pixka bat berantagoko tartean argitaratutakoak. Aldi horrek liburuari ematen dio estraineko bereiztasuna. Izan ere, sarritan nabarmendu duten legez, Primo de Riveraren agintaldi politiko hori, ikerlanei dagokienez, umezurtz izan dugu, Diktadura Frankista, II Errepublika eta 1936.ko Gerrarekiko arreta gune indartsuek eklipsatu dutelako 1923-1930.ko aro diktatoriala. Nafarroako mugetatik atera gabe, Jesús María Fuentes Langasek bere Doktoradutza tesia “La Dictadura de Primo de Rivera en Navarra” plazaratu zuen arte, izenburu berdintsuaren Francisco Mirandaren liburuttoa, eta Elena Osesen “La Voz de Navarra” Un periódico vasquista”. “Sus primeras campañas (1923-1931)” tesiaren ondorioz argitaratutako artikulua bat baino ez zegoen.

Bigarren ezaugarri berezia, Etayoren lerrokatze politiko-ideologikotik datorkigu. Hori dela medio, Etayoren idazlanek ohiko liburua osatzen ez duten arren, 1923-1931 bitarteko abaguneari buruzko hainbat hutsune betetzen dituzte. Aintzakotzat hartzen badugu Etayo jaimista izan zela, ohiko topikoen gainetik, aurrez aurre antzeman deza-kegu orduko errealtate politiko aldakor bezain anitza. Izan ere berak idatzitako arkitulu horietan foruzaletasunari buruzko diskurtsu historizista mota bat dugu, beste ikuspegi garaikidekin lehia bizian dagoena. Hori dela eta, orduko eztabaiden isla izateaz gain, Primo de Riveraren agintaldi kritikoa, Nafarroan izan ziren praxi politiko hagitz desberdinen testigantza dugu. Besteak beste, Diktaduraren aurrean makurtu ziren Upetistenak, “Diario de Navarra” aterpe eta akuilu izan zuten sektore kontserbadoreenak edo Nafarroaren eskubide foralen aldeko borrokan hurbil oso aritu ziren hainbat sektore jaimistenak zein nazionalistenak. Azken bi horien artean zubigintza lanetan aritu zen buru belarri kazetari historiagile nafarra. Hainbat haize aldeko zituen horretarako. Alde batetik, karlista zenbaitek foruen auzian, berreskurapenaren helburuan, hain zuzen ere, bat egiten zutelako orduko jeltxidekin. Bestetik, eremu kulturaleran, hainbat karlista zein nazionalista elkarkide izan zirelako, bereziki, 1918.z gerotik, Eusko Ikaskuntzak martxan jarritako ekimen ugarritan. Esate baterako, Etayo bera erakunde horren bazkide sortzailea izateaz gain, Iruñean burutu zuten II. Biltzairean, parte hartze oso nabarmena izan zuen. Era berean, nazionalisten eta jaimisten arteko elkarkidetzaren emaitzarik esanguratsuena suertatu zen “Alianza Foral” delakoaren hainbat helburu - “Berreskurapen foral osoa. 1841.ko hitzarmena abiapuntu-tzat hartuta, Nafarroa eta Euskal Herri osoaren burujabetza deuseztatu zuen 1839.ko legearen abolizioa lortzeko.” “Euskal endaren anaiekin elkartzen gaituen lokarriak sendotzea, herri ezaugarriak sustatuz, bereziki euskal mintzaira.”- bat zetozen Etayoren idazlanekin.

Foruzaletasunean eta Euskaltzaletasunean oinarritu zen elkarkidetzari, Diktaduraren galbahea zeharkatu beharko zuen geroxeago Primo de Riverak berea martxan jarri ondoren. Ildo horretatik Etayoren artikuluek ederki erakusten digute karlismoaren sektore bat, ondorio guztiekin, foruen berreskurapenaren alde aritzeko prest zegoela. Gobernutik zein beste sektore eskuindar nafarretatik bultzatzen zen foruen kontrako jardun txikitzailearen aurka zegoena hain zuzen ere. Garbi ikusten dira jarrera eta sektore hori, esate baterako, 1926-1927.ko urtetan izandako eztabaidetan. Izan ere, Etayok eta beste hainbatek, “La Voz de Navarra”ren bitartez, Nafarroako foruen berreskurapena aldarrikatzen zuten bitartean, 1841.ko legean oinarritzen zen estatusa defenditzen zuten Upetisten eta Diario de Navarraren artikuluegileen ikuspuntuak kritikatzeko zituzten. Azken egunkari hau, kritiken jomuga nagusia bilakaturik, saldukeriaren ikur nagusitzat jotzen zuen Etayok, bereziki, Diktaduraren bukaerako hilabetetan, zentsura ahuldu zenean. 1920.ko hamarkadaren hasieran, Victor Praderak, Julio Altadillek, Manuel Aranzadiak, Arturo Campionek, Jesús Etayok berak Amaiurko borrokalarien gainean izandako eztabaida politikohistorikoen, oihartzun berritua izan zuten, Etayoren artikuluei esker, 1840- 1841 edota 1926-1927.an izandako “hondamen foralak” aztertu zituenean. 1927.ko abuztuak 12an sinatutako azken komenio ekonomiko horrek sortarazi zuen egoeraren aurka –Diputazioak eta Kontseilu Foralak kupoa emendatzea onartzen zuten bitartean, atxiloketak eta isunak gauzatzen ari ziren– makina bat artikulua saiatu zen argitaratzen, zentsurarekin behin eta berriro talka eginez.

Gainera, abagune horietan ez ezik, beste unetan ere, maisuen izendapena, kinten auzia, garraioen bezalako arazoak azaldu zirelarik, Etayok jakin zuen azaltzen Nafarroak defenditu beharko zituen eskubideak. Beste mailan ere, 1931.ko formulazio autonomizaleak gauzatzeke zeuden arren, argi eta garbi mintzatzen zaigu euskal guztien arteko batasunaz baita euskerak izan beharko zuen berreskuratze politikaz ere. Etayo beraz, bozeramaile aitzindari eta nabarmen izan zuten hainbat karlista “El Ideal Navarro” aldizkariaren bitartez euskal nazionalismora hurbildu zirenean, “Diktatublanda”

amaitzear zegoenean hain zuzen ere. Baina, jakina, karlismoaren gehiengoak, 1931.z geroztik, altxamendu militarren bidea hautatu zuen II Errepublika hondoratzeko, Etayo bezalakoen jarrera euskaltzale eta foruzalea, asmo matxinatzileen pean itoara-ziz. Hori dela eta, ulergarri suerta daiteke, 1931-1932 bitartean esparru tradizionalis-tak autonomiaren auzian izan zuen bilakaera xelebrea. Lizarrako Estatutua sustatu ondoren, urtebete beranduago, Estatutu Vasco-Navarro delakoari bizkarra ematea eta azken hori porroterazi bezain laster, asmo autonomizale guztiak erabat zokoratzea.

Zer zioen horretaz Jesus Etayok? Liburu horretan azaltzen den artikuluen bildu-ma, 1931.ko apirilak 25ean bukatzen delako, ezinezkoa dugu jakitea zer zioen kaze-tari nafarrak. Horren ondorioz, lagungarri bezain argigarria izanen zen 1931.tik aurrera idatzi zuena, prentsaren bitartez, eskutitzetan, oharretan edo zirriborroetan, idatzirik utziko zuena argitara ematea. Horrela, agian, argitu zitekeen, karlismoaren sektore euskaltzale eta foruzaleen deuseztatzea eta 1936.an indarrean jarri zen Dik-tadura frankistaren emagina izan zen sektore matxinoren garaipena. Ziur gaude, kaze-taritza, historia eta politika 1923-1931 tartean hain gertu eta sakon jorratu zituenak, Errepublikak ireki zuen aro esanguratsuan, gogoeta asko burutuko zituela. Bere sek-tore politikoak zuen aniztasuna, baita Nafarroakoa ere ezagutzeko, horiek argitaratzea eta argitzea ariketa oso eskergarria izanen zelakoan gaude.

*Josu Chueca Intxusta*



**GASTÓN AGUAS, José Miguel**  
**¡Arriba jornaleros! Los campesinos navarros ante la revolu-ción burguesa (1841-1868)**  
 Tafalla : Txalaparta, 2003. - 346 p. : gráf. ; 22 cm. - ISBN: 84-8136-283-2

El paisaje del pasado no es ni mucho menos una imagen detenida en tono sepia. Tampoco se trata, desde luego, de una masa informe en continuo movimiento. Hay, sí, elementos estables que confieren certidumbre y hacen identificable el retra-to; pero uno puede descubrir entre los pliegues de la imagen nuevas figuras ignora-das hasta el momento, o combinaciones insospechadas entre los elementos ya conocidos. No es que el pasado cambie como nosotros cambiamos, que va. Cambia la mirada, nuestras miradas, y en esas nuevas perspectivas el propio objeto parece también alterarse. Habrá quien se sienta desorientado ante este grado de incerti-dumbre e invocará el anclaje de la Historia ya escrita de antemano –más aún si ello amenaza su propia constitución (sentimental, ideológica) como sujeto–, pero ello es tanto como vendarse los ojos. Un ejemplo de esta incomoda naturaleza del conoci-miento y de la memoria lo constituye la construcción de la historia de Navarra.

Está, por orden de antigüedad, la mirada del historiador erudito heredero del romanticismo, atento a las individualidades destacadas –los reyes, los héroes– y a